**1.997**


TIBURZIO DONEAREN
FESTAK
LEITZA
97
ABUZTUAK 10-15

# HERRITARROK: ZORION ETA PESTA ON!

**LEITZAKO UDALA**



JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUE
Herritar eta bisitari guztiei

**AURRERA K.E.-KO BAZKIDEEK**

Herritar eta bisitari guztiei
JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUE

Beste urte bat atzean gelditu zaigu.

Urte bateko laburpena lau lerrotan egiteko asmorik ez dugu, zaila bezain arriskutsua gerta bait daiteke. Gizartearen giroari buruz zerbait esan beharra dago eta denok aspalditik begi bistan izan duguna azaltzea besterik ez zaigu gelditzen, une askotan larruazala hozkirritzen diguna alegia. Egoera ez da batere hobetu; tentsioa areagotu da. Noiz arte horrela? Konponbiderako urratsak eman beharra daude.

Udalari dagokionez hortxe daude denon nahiaren kontra erabat atera ezin izan diren asmoak, oraingoz behintzat. Baina hortxe daude ere, elkarlanean eman diren aurrerapenak eta honek baikortasunaz betetzen gaitu, nahiz eta beti "kalteturen" bat sortu beti. Dena den beti bezala interes orokorrekoari eman nahi izan diogu lehentasuna.

Orain pesten atarian aurkitzen gara eta hauek askorentzat urtearen muga ezartzen dutenak dira: pesten aurrekoa eta ondorengoa. Bitartean atsedenerako, juergarako, dantzarako, hainbat nahi kaleratzeko... garai paregabea.

Beraz, ongi pasatzeko aukera hau ez galdu ezta galarazten utzi ere. Norberak bere buruari horrela izan dadin behar den ardura eskatuz, pesta zoriontsuak izan eta bete.

Arrazoi ezberdinengatik eta berauen nahiaren kontra pestetako giroaz gozatzerik ezin izaten dutenak ere badira, horientzat oroimen berezia.

Guzti hau kontutan izanik, udaleko kide guztien izenean,

GORA TIBURTZIO DONEAREN PESTAK.

PESTETAN ERE GORA LEITZA.

# ABUZTUAK 2, LARUNBATA

## *ERREPARTOAREN EGUNE*

**Atsaldeko 4etan:** Herri guztian barrena pestetako egitarauen banaketa eginen da. Leitzeko gaztek, trikitilari, txistulari eta akordionen laguntzez, etxez etxe ibiliko dira.

Gogoan izan, dirue, kaxa giltzatue duenei bakarrik eman behar zaiela.

# ABUZTUAK 3, IGANDEA

## *UMEEN EGUNE*

**Goizeko 8etan:** Diana txistularikin.

**Goizeko 10etan:** Zikliste gazteen (kadete mailakoak) karrera.

**Goizeko 11'30etan:** Aurrera K.E. pilotari gazteenaren partiduak plazan.

**Goizeko 12'30etan:** Herri kirolak.

**Atsaldeko 4etan:** Ummeen zanpantzar.

**Atsaldeko 5etan:** Txirrindulari umeen karrera herrian barrena.

**Atsaldeko 5etan:** Umeentzako jokoak plazan (soskor apustue, zaku-saltoa,...).

**Atsaldeko 7etan:** Aurrerako dantzari ttikien saioa plazan.

**Atsaldeko 8'30etan eta 11etatik aurrera:**
ETZAKIT taldekin dantzaldie.






# ABUZTUAK 9, LARUNBATA

## *PESTA BEZPERAN BEZPERA*

**Gaueko 10etan:** Benito Lertxundiren emanaldie frontonen Asketa abesba-tzaren eskutik.

# ABUZTUAK 10, IGANDEA

## *PESTA BEZPERA*

**Eguerdiko 12etan:** Pestei hasiera emanez, ezkilek jotzea eta etxafuego botatzea.

Ondoren Plazaola aldizkarin azalen lehiaketan irabazle izan denari Herriko alkateak sarie emanen dio Udaletxeko sala nagusian. Plazan berriz nahiko musika eta zalaparta.

**Eguerdiko 2etan:** Herri bazkarie herriko Gestorak antolatue.

**Atsaldeko 5'30etan:** Pillota partidue eta ondoren, herriko koadrilek bere trebetasune erakutsiko dute herri-kiroletan (soskor apustue, zaku-saltoa,...)

**Atsaldeko 7'30etan eta 12'30etatik aurrera:** BASAJAUN taldea plazan.

**Gaueko 12etan:** BETAGARRI eta SKALARIAK taldeen kontzertue txoznatan.





# ABUZTUAK 11, ASTELEHENA

## *TIBURTZIO DONEAREN EGUNE*

**Goizeko 7'30etan:** Diana. Txistularik beren buelta eginen dute, eta musika eskolako trikitilarik berriz, Patxi Arrazola eta Amazabal auzoak esnarazten saiatuko die.

**Goizeko 9etan:** Entzierroa eta xexenak plazan.

**Goizeko 10'30etan:** Meza nagusie, dantzarik eta herriko korporazioak lagundurik.

**Eguerdiko 12etan:** Aurrera K.E.ko ezpatadantzarien saioa herriko plazan.

**Eguerdiko 12'30etan:** Aurrera K.E.ko pilota eskolak antolatutako pilota partiduak.

**Atsaldeko 5'30etan:** Xexenak plazan.

**Atsaldeko 6'30etan:** S. Lizaso, A. Egaña, Mendiluze eta Leire Bilbao bertsolarien saioa, plazan hauek ere.

**Atsaldeko 8etan eta 11etatik aurrera:** LAIOTZ taldearen emanaldie.



# ABUZTUAK 12, ASTEARTEA

## *PESTA BIGARRENA*

**Goizeko 7'30etan:** Diana. Txistularik betiko buelta, eta musika eskolako trikitilarik, alde zaharra, Manuel Lasarte, Huarte Gotzaia eta San Jose auzoetan ibiliko dire.

**Goizeko 9etan:** Entzierroa eta xexenak plazan.

**Goizeko 11'30etan:** Herri kirolak plazan. Perurena atte-semek harrijasotzen eta Mindegia atte-semek, Olasagasti - Arria V-ren kontra.

**Atsaldeko 5'30etan:** Xexenak plazan.

**Atsaldeko 6'30etan:** Aurrera K.E.ko dantzarien saioa.

**Atsaldeko 8etan eta 11etatik aurrera:** ETZAKIT taldearekin dantzaldie.

**Gaueko 12etan:** Kontzertue txoznatan.





# ABUZTUAK 13, ASTEAZKENA

## *PESTA HIRUGARRENA*

**Goizeko 7'30etan:** Diana. Txistularik non ibiliko diren esan beharrik ez dago, eta musika eskolako trikitilarik berriz, Patxi Arrazola eta Amazabal auzoetara joko dute.

**Goizeko 9etan:** Entzierroa eta xexenak plazan.

**Goizeko 10'30etan:** Txirrindulari jubenilen karrera, herrin hasi eta bukatu.

**Eguerdiko 11etan:** Kalderete txapelketa Udaletxeko karrapean.

**Eguerdiko 1etan:** Txirrindulari eta sukaldariei sari banaketa.

**Atsaldeko 5'30etan:** Xexenak plazan.

**Atsaldeko 6'30etan:** Umeentzako kale animazioa GOLOKA taldearekin.

**Atsaldeko 8etan:** Txiste kontalarik txoznatan.

**Atsaldeko 8etan eta 11etatik aurrera:** GAUBELA taldea.





# ABUZTUAK 14, OSTEGUNA

## *PESTA LAUGARRENA*

**Goizeko 7'30etan:** Diana. Bai txistularik eta bai trikitilarik, asteartean egindako buelta bera eginen dute.

**Goizeko 9etan:** Entzierroa eta xexenak plazan.

**Goizeko 11'30etan:** Herri kirolak plazan. Motozerra exibizioa eta aizkolarik. Aresoko sokatira taldearen saioa eta Mieltxo Saralegi arrijasotzen.

**Atsaldeko 5'30etan:** Xexenak plazan.

**Atsaldeko 6'30etan:** Pillota partidue eta ondoren TTANTTOKA emakume taldeak antolatutako erakustaldia.

**Atsaldeko 8etan eta 12'30etatik aurrera:** IZOTZ taldearekin berotzeko aukera.

**Gaueko 12etan:** Kontzertue txoznatan.





# ABUZTUAK 15, OSTIRALA

## *BIKOTEEN EGUNA*

**Goizeko 7'30etan:** Azken Diana. Txistularik zertarako aldatu azkeneko egunean, eta trikitilarik berriz, Patxi Arrazola eta Amazabale ibiliko dire.

**Goizeko 9etan:** Entzierroa eta xexenak plazan.

**Goizeko 11'30etan:** Iruñeko Donibane auzoko erraldoiek gaiteroekin herrin barrena ibiliko dire.

**Eguerdiko 2'30etan:** Aurrerako bazkideen bazkarie Labetxen.

**Atsaldeko 6etan:** Bikoteen entzierroa eta xexenak plazan.

**Atsaldeko 7etan:** Bikoteen ingurutxoa.

**Atsaldeko 8etan eta 11etatik aurrera:** XIMISTAK iparraldeko taldea.

**Gaueko 10etan:** Afarie txoznatan.

**Ingurutxoa ondoren "POBRE DE MI"** Labetxeko ataritik hasita toki beren bukatuz. Ondoren txokolatada txoznatan.





# FIESTAS PATRONALES, 1997

## DIA 2 DE AGOSTO, SABADO
**REPARTO DE PROGRAMAS**

**4 de la tarde:** Los jóvenes del pueblo acompañados por trikitilaris y txistularis, etc. andarán de casa en casa repartiendo el programa de fiestas. Recordar que el dinero se deberá entregar sólo a aquellos que vayan provistos de caja precintada.

## DIA 3 DE AGOSTO, DOMINGO
**DIA DEL NIÑO**

**8 de la mañana:**
Diana con txistularis.
**10 de la mañana:** Carrera ciclista.
**11'30 de la mañana:** Partidos de pelota de jóvenes de la sociedad Aurrera K.E.
**12'30 de la mañana:** Deportes Rurales.
**4 de la tarde:** Zampanzar de niños.
**5 de la tarde:** Carrera ciclista de niños por el pueblo y juegos infantiles en la plaza.
**7 de la tarde:** Actuación de danzaris pequeños en la plaza.
**8'30 de la tarde y a partir de las 11:** Actuación del grupo ETZAKIT.

## DIA 9 DE AGOSTO, SABADO
**VISPERA DE VISPERA DE FIESTAS**

**10 de la noche:** Actuación de Benito Lertxundi en el frontón.

## DIA 10 DE AGOSTO, DOMINGO
**VISPERA DE FIESTAS**

**12 del mediodía:** Tocando las campanadas y echando cohetes, damos comienzo a las fiestas. Después, al ganador del artículo de la revista Plazaola, el alcalde del pueblo de dará un premio en la sala mayor del Ayuntamiento. Mientras que en la plaza habrá música y txalaparta.
**2 de la tarde:** Comida popular, organizada por los Gestoras del pueblo.
**5'30 de la tarde:** Partido de pelota y después, las cuadrillas del pueblo mostrarán su valor en los deportes rurales.
**7'30 de la tarde y a partir de las 12'30:** Actuación del grupo BASAJAUN.
**12 de la noche:** Diaporamas de deportes rurales de Leiza y despues y también en las choznas de los grupos BETAGARRI y SKALARIAK.

## DIA 11 DE AGOSTO, LUNES
**DIA DE SAN TIBURCIO**

**7'30 de la mañana:** Diana. Los txistularis darán su vuelta y las trikitilaris de la escuela de música despertarán al pueblo junto con Patxi Arrazola y Amazabal.
**9 de la mañana:** Encierro y toros en la plaza.
**10'30 de la mañana:** Misa Mayor con la ayuda de danzaris y la corporación del pueblo.
**12 del mediodía:** Danza de espadas de socios de C.D. Aurrera.
**12'30 del mediodía:** Partido de pelota organizado por la escuela de C.D. Aurrera.
**5'30 de la tarde:** Toros en la plaza.
**6'30 de la tarde:** Actuación con versos de S. Lizaso, A. Egaña, Mendiluze y Leire Bilbao en la plaza.
**8 de la tarde y a partir de las 11:** Actuación del grupo LAIOTZ.

## ABUZTUAK 12, ASTEARTEA
**PESTA BIGARRENA**

**7'30 de la mañana:** Diana. Los txistularis y los trikitilaris de la escuela darán la habitual vuelta, y en la parte vieja andarán en los barrios de Manuel Lasarte, Huarte Gotzaia y San Jose.
**9 de la mañana:** Encierro y toros en la plaza.
**11'30 de la mañana:** Deportes Rurales en la plaza. Padre e hijo Perurena en levantamiento de piedra y Mindegia padre e hijo.
**5'30 de la tarde:** Toros en la plaza.
**6'30 de la tarde:** Danzaris del C.D. Aurrera.
**8 de la tarde y a partir de las 11:** Actuación del grupo ETZAKIT.
**12 de la noche:** Concierto en las choznas.

## ABUZTUAK 13, ASTEAZKENA
**PESTA HIRUGARRENA**

**7'30 de la mañana** Diana. Esta vez no habrá que decir donde están los txistularis y los de la escuela de trikitixa andarán en los barrios de Patxi Arrazola y Amazabal
**9 de la mañana:** Encierro y toros en la plaza.
**10'30 de la mañana:** Carrera ciclista juvenil, empezando y acabando en el pueblo en el pueblo.
**11 de la mañana:** Concurso de calderetes en el Ayuntamiento.
**1 de la tarde:** Reparto de premios a los ciclistas y cocineros.
**5'30 de la tarde:** Toros en la plaza.
**6'30 de la tarde:** Animación para los niños con el grupo GOLOKA.
**8 de la tarde:** Cuenta chistes en las choznas.
**8 de la tarde y a partir de las 11:** Actuación del grupo GAUBELA.

## ABUZTUAK 14, OSTEGUNA
**PESTA LAUGARRENA**

**7'30 de la mañana:** Diana. Tanto los txistularis como los trikitilaris darán la misma vuelta del martes.
**9 de la mañana:** Encierro y toros en la plaza.
**11'30 de la mañana:** Deportes Rurales en la plaza. Exhibición de motosierras y aizkolaris.
**5'30 de la tarde:** Toros en la plaza.
**6'30 de la tarde:** Cantantes en la plaza con el grupo de mujeres de TTANTTOKA.
**8 de la tarde y a partir de las 11:** Actuación del grupo IZOTZ.
**12 de la noche:** Diaporamas de deportes rurales de Leiza y también concierto en las choznas.

## ABUZTUAK 15, OSTIRALA
**BIKOTEEN EGUNA**

**7'30 de la mañana:** Ultima diana. Para que cambiarse los txistularis el último día, mientras los trikitilaris, andarán Patxi Arrazola y Amazabale.
**9 de la mañana:** Encierro y toros en la plaza.
**11'30 de la mañana:** Gigantes de Pamplona del barrio de San Juan, andarán con los gaiteros por el pueblo.
**2'30 de la tarde:** Comida de los socios de C.D. Aurrera.
**6 de la tarde:** Encierro de parejas y toros en la plaza.
**7 de la tarde:** Ingurutxo de parejas.
**8 de la tarde y a partir de las 11:** Actuación del grupo XIMISTAK.
**10 de la noche:** Cena en las choznas.
Después del ingurutxo, **"POBRE DE MI"** empezando desde el portal de Labetxeko acabando en el mismo sitio. Luego chocolatada en las choznas.

# OHARRAK

1. INCANSABLES txarangak egunero, eguerdi, atsalde eta gaben herriko baztarrak alaituko dittu.
2. BURU-HAUNDIK atsaldero aterako dire TXARANGAKIN batera.
3. UDALAK ez do XEXENETAN gerta dittezkeen istripuen erantzunkizunik.
4. EGITARAUE borondatearen truke banatuko da. UDALETXEAN eta TABERNETAN ere salgai egonen da.
5. Aurten ASEGARCEk antolatutako partidu profesionalen berri esku programen bidez izanen dugu, bertan lekue, ordue eta abar. zehaztuko direlarik.
6. XEXENETAN dabiltzenei eskapada bidea errezagoa egiteko barreren gainean inor ez esertzea, eskertuko ginuke.
7. AURRERAKO BAZKIDEEN BAZKARIRA joan nahi dunak, txartelak Abuztuaren 13a beño lehen, salgai izanen ditto MENDIZABAL ta MUSUNZARen.
8. Goizeko hiruek aldera, egunero, INGURUTXOA dantzatzen saiatuko ga. Ikusita azkeneko urte hontan, gero ta okerrago gabiltzela, gure INGURUTXOA alde aldea dantzatzeko, faborez eskatuko ginuke, jendea atera dedile dantzatzera edo indioana egitera beño fundamendu pixko batekin, eta txistulariri eta eskoberoei kaso eginez.

# AVISOS

1. La charanga LOS INCANSABLES animará el pueblo todos los días de mañana, tarde y noche.
2. Los cabezudos saldrán todos los días por la tarde junto con la charanga.
3. El Ayuntamiento no se hará cargo de los accidentes que ocurran en las vaquillas.
4. El programa de fiestas se repartirá a cambio de la voluntad. Además se podrá obtener en el Ayuntamiento y los bares del pueblo.
5. Asimismo, se informará debidamente sobre los partidos de pelota profesionales organizados por «ASEGARCE», mediante los correspondientes programas de mano.
6. Sería de agradecer que el público asistente a los espectáculos taurinos, se abstubiese de sentarse encima de las barreras, para así facilitar la huida de los que se vieren en apuros ante las embestidas de los astados.
7. Todo el que desee asistir a la comida de socios del C. D. AURRERA, deberá comprar el ticket antes del 13 de Agosto en los bares MENDIZABAL y MUSUNZAR.
8. Todos los días, a las 3 de la mañana, habrá INGURUTXO en la Plaza. Se ruega seguir las indicaciones de los txistularis y los escoberos.

# PLAZAOLAREN ANTOLATZAILEEN OHARRA

1. PLAZAOLA ALDIZKARIAREN ANTOLATZAILEEK EZ DUTE ZERTAN ADOS EGON BEHAR, BERTAN AGERTZEN DIREN IRITZI DESBERDINETAKO IDAZKIEKIN.
2. LANAK BIDALTZEN DITUZTENEK BEREN IZENAK JAKINARAZI BEHAR DIE ALDIZKARIAREN ANTOLATZAILEEI, SOR DAITEZKEEN ARAZO LEGALAZ IDAZKIEN EGILEEN ERANTZUNKIZUNA IZANEN DIRELARIK.


PLAZAOLA
LEITZAKO 19 ZENBAKIA
ALDIZKARIA

# JOXERRAMON ALPARO BEGIAK ESTALITA SANTAKUTZKO ERMITARA

***Atsalde on.***

- Bai zuri´re.

***Bazkaldu al da edo zertan ga?***

- Partidue ekusten ari ga.

***Nek dot aditzea zok yokatu omen ziñula behin apustu bat begik estalita baietz Santakutze yoan...***

- A bai, Aienetik. Hori Mitxelaundik (Tomasek) iñ zun aurrena apustu eta gero atzera iñ zun. Fermin Erbiti eta Agustin Sukuntza zittun kontrarioak. Hamar duro yokatzen zittuen. Je, hori nek ere iñen nikek, esan nun. Eta hola, dirue bota giñun. Begik bendatu eta makille metro erdikoa nun autorizatue, aleye miñik ez hartzeko eta hola. Hala, Aieneko dendan sartu eta han aurrena begi zuloak goataz estali eta gero Kristo bezala lotu neoan. Deus ere ekusten ez nun baño okerragoa zen bendaren estutasune; eroa bezela gelditu nintzen baño pasatu zitzien. Atera nintzen Aienetik, kanposantun bazterretik gora, atzetik sekuleko salle nula. Nek ordureko igarrie bidea, memorin eraman behar baita nondik barrena yoan, bestela ez do balio. Eta ze iñ nun Aldeko belatso luze horren azpin sartu eta goiko atakan atera eta zuzenen Aieneko borda nola da, Mitxelaundin borda esaten diou, hara, eta haren kontran barrena,zerara, ermitten pare parera eta handik zuzenen ermittera. 21 minutun sartu nintzen. Ordu bete nun izentatue.

***Harritzekoa da hola Santakutz billatzea zuzenen.***

-Dena memorin eraman behar da, etxen eskalleratan nola yoaten za, halaxe. Paulinaren belatsoan behiko atakan sartu nintzen, lauhankan io nintzen belatsoa gora eta goiko atakan atera eta sasi kontran elorrik eta antximeloak eta denak bazterrera utzi eta aurrera.

***Eta ermitte ederki billatu.***

- Zuzenen billatu nun ermitte. Pixko bat dudazi neoan,zera, bordondoan "oker zik, oker zik", esaten zuen, apropos, kontrarioak. Oker ote noa ba? Pareta gañeko alambrea ekuttu nun eta alperrik ari dittok. Han zabala da lekue baño zabal hartan billatu behar nondik yoan. Han oker ittea errexa da.



Belatso Luzea. Alparo han-hemen igo zen behiko atakatik goikora.

***Ordun sume izugarrie dozo zok.***

- Ziztu onen yoan nintzen, Jesus! Besteek atzetik ezin seittuz Sasobea ere halakoa nun ordun eta.

***Noiz zen hori?***

- Seguro ez dakitt baño 43ean izanen zen. Ni 44ko kintoa naiz eta hori soldadu yoan baño lehen izanen zen. Udazkena zen eta igandea. Ixtor-gitten ari giñen biñipin garai hartan.

Gero Inaziobarunen ateetatik Santakutzko ermittera iñ nahi nun apustu baño iñork etzien kontrik iñ.

Yoantzarko herrin, 1997-ko garagarrillek 15.

ASTAITZ



Joxerramon Alparo, kontu kontatzaile egokia.

# ATERALDIAK ZAKUR HERRIKOAK

Elurra egin zuen eta Arakindegiko atarian zakur arrastoak zeuden. Inazio Letxeroa eta bere laguntzaile Balentin etorri ziren kamionari kateak jarrita ahal zuten bezala Lekunberritik Leitzera Uitziko gaina barrena.

Inaziok.- Lekunberritik Leitzera gu etorri gaituk gaur aurreneko.

Miel Joakin Inaziobarunenak.- Zuek baino lehenago etorriak badittok.

Inaziok.- Bai?, nor?

Miel Joakin Inaziobarunenak.- Begira hitzak arrastoak!

## ERRESPETU HAUNDIA

Lehenago apaizei berorika hitz egiten zitzaien eta etxe batzutan seme-alabak gurasoei ere hala hitz egiten zioten. Orokietako Zenozeneko Mari Trinik bere atteri berorika hitz egiten zion. Tolosako denda bateko neskak bezeroei berorika hitz egiten entzunda nago. Errespetu haundiko gizonei ere batzutan hala hitz egiten omen zitzaien. Gizon bat ezagutu nuen etxe mordoska eta lur asko zituena eta gero denak jan, lur jo eta miserian hil zen. Gogoan dauket gure atte zenak gizon horrengatik nola esan zuen: "Hori lehenago berorika hitz egiteko moduko gizona zen eta orain ikusten den lekuan ipurdian ostiko bat ematea merezi luke".

Etxe batean alabak amari berorika hitz egiten zion.Errespetuzko tratamendua bai baina maiz inkimanka ibiltzen ziren. Egun batean alaba amari burtsaloka hasi zitzaion eta eltze soinu ikaragarriak atera zituzten. Sukaldean ezin kabitu eta haserre bizian leiho banatara atera ziren eta han segitu zuten elkarri asmahalak esaten.




Amak.- Etxe hau putetxea da, putetxea.

Alabak.- Ba etxe hontan putarik inor baldin bada berori da.

## SARDIÑE YAN, SARDIÑE LAN

Basoan komediak ikusitakoak badira nagusi gogorrekin eta mantenu txarrarekin. Baziren baba besterik ematen ez zutenak, gosaltzeko babak, bazkaltzeko babak eta afaltzeko berdin.Olioa ere ahal zen gutxiena ematen zioten eltze-babari. Eta batzutan arrantxeroa betarik gabe babak ongi egosteko. Bazkaltzen hasi eta hartu baba alea, harriari tiratu eta potea egiten zuela.

Lehenago zurak mendian leundu eta zerratzen ziren. Aurrena zerratokia egiten zuten eta gero han zatagiarekin zura jarri eta zerraz oholak egiten zituzten. Bat zuraren azpian eta bestea gainean aritzen ziren. Gain zerrra zen nekosoena.

Sarasaingo zerratokian ari ziren lanean. Babak eta sardintzarra mantenua. Han ari ziren osotara ahulduak, motel, motel, kemenik gabe.

Behikoak esaten zuen: sardiñe yan, eta goikoak erantzuten zion: sardiñe lan. Eta hola ari ziren: sardiñe yan, sardiñe lan, sardiñe yan, sardiñe lan, sardiñe yan, sardiñe lan...

Nagusiak entzun zuen errotolika hura eta hurrengo egunerako naiko haragia ekarri zuen. Okela jan da biztu ziren zerrariak eta han hasi ziren ziztu bizian:

Ongi yan, ongi lan, ongi yan, ongi lan, ongi yan ongi lan...

## AMORRAXKETAN BEHERA

Leitzarrak eta Goizuetarrak beti izan dugu hartu eman haundia. Artalderako aharia goizuetarrak Leitzetik eramaten zuten eta Leitzarrak Goizuetatik ekartzen zuten, trukada egiten zuten. Zaldia zikiratu behar zela, Leitzeko estazioan trena hartu behar zela norabaitera joateko...Goizuetar asko etortzen zen Leitzera. Eta Leitzar asko joaten zen Goizuetara, batik bat amabirjiñetan, Goizuetako festetan. Esan beharrik ez dago mendiz ibiltzen zirela.

Behin goizuetako emakume bat bazetorren Leitzera eta Eskibarren lehendik ezagutzen zuen artzai bat ikusi zuen. Hasi ziren jolasean eta zera, etsaiaren tentazio, larrutan ari behar zutela. Hasi dira eta gizona motel, erremintarik ez jartzen lanerako prest. Eginahalak egin eta ezin. Halako batean gizonak berotasun pixka bat sumatu du baina usteak erdia ustel:

Gizonak-Heldu zatela, heldu zatela!

Emakumeak.-Non dok ba, Amorraxketan behera edo?

Amorraxketa Eskibartik gorago dagoen mendia da.

## ESAERA ZAHARRAK

Gizaldietako jakinduria dago laburbildua esaera zaharretan. Bat urteetan gora joan ahalean konturatzen da zenbat egia dagoen esaldi motz horietan. Esaera zaharrak dakizkiena eta aintzat hartzen dituena ez da munduan galduko. Hara hemen Pepita Txuitanekoak (orain herrian bizi denak) esaten dituen batzuk:

1.-Etxe guzietan arrosak arantzekin; arrosak denbora gutxirako, arantzak urte guzirako.

2.-Besteren miñak, begian lo.

3.-Zahietan zuhur eta iriñetan ero.

Zer esan nahi duten? Aurrenekoa denak ulertzen dugula uste dut. Bigarrenak esan nahi du besteren minarengatik ez zaigula axolik. Eta hirugarrena adibide batekin adieraziko dut : ogia erosteko zuhurkerietan ibili eta angulak kiloka erosi.

# BIKOTEEN EGUNA

Aldaketa batek maiz beste aldaketaren bat edo giza mugimenduen bat ekartzen du eta oraingoan azalpen txiki bat eskeini nahi dizuegu programa honetan dugun aldaketa txiki bati buruz.

Ezkonduen eguna izatetik bikoteen eguna izatera etorri da.

Horratx aldaketa!!

Nahi genuke hitz soilean ez gelditzea eta guztion hizpide izatea.

Bikoteen eguna proposatzearen arrazoi nagusia egun horretarako eskeintzen diren ekintzetan parte hartzea zabaltzea da, alegia, ezkontzatik kanpoko harreman orok ere bere lekua izatea, hala nahi izanez gero.

Ez dago inori deus kentzeko asmorik, aukerak zabaltzekoa baizik. Aukerak zabaldu ezkondu gabeko bikote heterosexualei, bikote homosexualei e.a. e.a. .

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| Emakumezkoa | + | Gizonezkoa | = | ongi. |
| Gizonezkoa | + | Gizonezkoa | = | ongi. |
| Emakumezkoa | + | Emakumezkoa | = | ongi. |

Onar dezagun errespetoz egun honetan eta baita beste egun guztietan ere harreman afektibo guztiak.

Eman diezaiegun txalo bero bat entzierroan edo ingurutxoan edo txikiteoan ateratzen den bikote orori, edozein konbinazio egiten duelarik ere .

Maitasunaren zurrunbiloak harrapatzen gaituenean bihotzak ez baitu bereizketarik egiten.

Errespetatuz errespetatuak izanen gara.

Oharra: Ongi etorriak Xabier eta Ion, Jose eta Miel, Amaia eta Iosu, Arantxa eta Idoia, A. - S. , ..........

TTANTTOKA emakume taldea.

# HOGEI URTE LUZE

1977an, Franco hil ondoren, gertatu zen presoen kaleratze orokorraren ondoren, erabakitzeke gelditu zen gatazka politikoaren ondorioz, kartzelak berriro ere euskal presoz betetzen hasi ziren. Urte guzti hauetan milaka euskal herritarrek ezagutu dute espetxea. Amnistia dekretatu eta berehalaxe atxilotuak izan zirenetako batzu, gaur, oraindik ere, espetxean darraite; Azken 20 urteok era jarraian kartzelean igaro dituzte.

Horiekin batera, gaur egun espetxeratuta dauden 560 euskal preso politikoetatik askok, iadanik 19, 18, 17,... urte daramatzate espetxe desberdinetan sartuta. Baina ez hori bakarrik; Denbora guzti honetan, beren nortasuna, beren konpromezua, beren adorea eta beren kemena apurtzeko, bereziki beraientzat prestaturiko politika penitentziarioa pairatu dute eta jasaten ari dira.

Milaka egun, sistematikoki eta aurrez pentsatuta, berez legeak jartzen dituen mugak gainditu eta gizabanakoaren duintasuna eta osotasuna bermatzen dituzten oinarrizko eskubideak zapaltzen dituen arau bereiztailearen bidez disimulatutako arbitrarietate eta irregulartasunez betetako tratamendua jasanez.

Egoera hori, lehen nahikoa kezkagarria ez bazen, larriagotu egin zen sakabanaketa-politika delakoaren ezarpenaren ondorioz. Neurri horrekin, euskal preso politikoak estatu español eta frantzeseko kartzeletara barreiatu zituzten eta gerora baita beroietan ere, modulo desberdinetan sartuz, horrela beren jaioterrietatik eta beren senideengandik ehundaka, askotan milaka kilometrotara errutiratuz.

Euskal preso politikoek jasaten duten tratamenduari dagozkion xehetasunak eta presoengan eta beren senideengan eragiten dituzten ondorioak lerro gutxitan adieraztea zaila da. Baina, tratamendu berezi hori noraino iritsi den argi uzten dutenak eta larrienak hauexek dira: SAKABANAKETA edo presoen urrutiratzea, PALIZAK eta erasoak, ISOLAKETA, baldintzapeko askatasunaren aplikazio ez objetiboa zigorraren 3/3AK BETEAK dituzteneri, arautegi penitentziarioko 60. Artikuluaren arabera GAIXOTASUN LARRIAK dituzten presoak baldintzapeko askatasunean egon beharko lukete.

Egoera hori arau eta jokabideen ondorioz larriagotu egiten da, presoen eta beren abokatuen arteko arremanak mugatuz, askotan defentsio-eskubidea ukatzera iristen direlarik.

LEITZEKO GESTORAK

# PROBOKAZIO GALANTA

Abuztuaren 11n urte bat beteko da UIL-ko zinegotzi eta UPN-komilitantea den Silvestre Zubiturrek Leitzako plazan ikurriña tiroz lurrera bota zuenetik. PLAZAOLA ale hau gure eskuetara iristen denean Santiburtzioak hastekotan egonen dira eta denok ekarriko dugu gogora iaz gertatutakoa.

Oso larria da Zubiturrek egindakoa eta hausnarketa sakona merezi du. Azken batez, ehundaka leitzar eta milaka euskaldunon sentimendu sakonenak tirokatu baitzituen egun horretan Zubiturrek. Eta horiekin batera, odol eta malko asko isurerazi duen gure askatasun egarria ere.

Baina hori baino gehiago egin zuen egun horretan Zubiturrek : bere bandera su eta gar defenditu, alegia . Dantzariek " española "-ri begira dantza zezaten nahi zuen fazista honek, eta ez zuen inolako lotsarik izan eskopeta hartu eta ikurriña bertan behera botatzeko, ehundaka leitzar harrituren aurrean.

Erantzun gogorra ekarri zuen jarrera burugabe horrek. Baita leitzarrenarteko eztabaida zabala ere: probokazioa da ala ez da "piperpotoa" Leitzako plazan jartzea? "Española" hori zeinen bandera den gogoratuz erantzunen diogu galdera horri :

- 1936-1939 ko gerratean Euskal Herria odolez beteta utzi zuten Mola eta Franco kolpista hiltzaileen bandera .

- Gerra ostean Nafarroan ehundaka ezkertzale eta nazionalista afusilatzen ibili ziren borreroen bandera.

- Gerra irabazita gero, etxean, eskolan , kalean eta nonahi euskaraz hitz egitea debekatu zuten navarrista biolentoen bandera .

- 1936-1977 bitartean ikurriña armaz debekatuta eduki zuten frankisten bandera.

- Soldaduskan milaka gazte euskaldun kizkali duen ejertzito arrotzaren bandera.

- GAL, BVE, AAA, ATE, GUERRILLEROS DE CRISTO REY... sortu eta dozenaka euskaldun hil duten mertzenarioen bandera .

- Koartelillo eta komisaldegietan milaka euskaldun torturatu duten goardazibil eta polizia sadikoen bandera .

- O-23 ospetsu hartan, Euskal Herria errezago txikitzeko asmotan, Estatu kolpea eman zuen Tejero pistoleroaren bandera .

- Autodeterminazio eskubidea defenditzera joan zen Josu Muguruza euskal diputatua erahil zuen Inestrillas eta ultra neofazista guztien bandera .

- Preso politikorik ez dagoela defenditzen duten toleranteen bandera .

- Gartzelatan dagoeneko dozena euskaldun hilik izatea posible egin duten foruzale navarreroen bandera .

- Nafarroa Euskal Herria ez dela eta " Españan " indarkeriaz integratuta egotera behartzen gaituzten demokraten bandera .

- HERRI URRATS , NAFARROAREN EGUNA eta antzeko jaietara Iparraldera joatea eragozten diguten polizia pilotazaleen bandera .

- Gaur udaletxeetan "piperpotoak" ohorezko lekua behar duela (erdian), ikurriña bigarren mailan gelditzen delarik (bazterrean), agintzen duen legea egin duten politiko ustel eta lapurren bandera .

- Euskal gazteria txikitzeko "y taldeak" eta lege berriak asmatuz dabiltzan epaile, fiskal eta politiko pakezaleen bandera .

- Miren Alduntzin, Juanito Zabaleta, Nati Zubillaga, Inazio Ariztimuño, Pakita Alduntzin, Feli Alduntzin, Patxi Mujika, Mikel Nieto , Joan Mari Beloki, Jose Mari Aleman, Mila Erbiti, Xefe Ziarrusta, Mari Feli Etxeandia, Errose Aurrekoetxea eta Josu Iparragirre leitzarrak, edo Leitzan bizi izanak, gaueko ordu ilunetan etxetik gogorki eraman eta noizbait "ongi ikututa" itzuli zituzten zakur torturatzaileen bandera .

- Pakita Alduntzin eta Patxi Mujikaren Manuel Lasarte auzoko etxeko atea bonbaz lehertu zuten aingeru guardakoen bandera.

- 1980 ean, besotan bi urtetako semea zuela , LANDA tabernan M.ª Dolores Gonzalez 3 metrotik gomazko pilotaz jo zuten langile trikorniodunen bandera. Edo 1982 an plazan, Jose Mari Alemanen atxiloketa zela eta , Pako Oronoz kortabordakoari iztarrean bete-betean bertatik pilotakada eman ziotenena. Edo 1983 an Jubilatuenetik atera berrian den Joantxeneko Migelikoribere pistolatik bala bat bota zion guztiz mozkortuta zegoen "paisanozko" harena . Edo urte berean manifestazio bat sakabanatzean LEITZARRA taberna barrura gomazko pilota bat botata Jabier Zabaleta zauritu eta barruan zeudenak porrazoka eta kulatazoka jipoitu zituztenena. Baita 1983 an BORDATXO -tik ateratzean Antonio Astiz eta Juan Mari Zabaleta egurtu zituztenena ere. 1987 an, surtidoreko bide gurutzean, lurrean borobilean eserita protesta ekintza bat egiten ari ginen 30-40 lagunak pilotazoka sakabanatu gintuztenena ere badela ahaztu gabe .

- 1984 ean Udaletxeko mastan zintzilik dagoen ikurriña ofiziala hartu eta koartelillora eraman zuten ordenu publikoaren zaintzaile amorratuen bandera.

- 1985 ean bide seinaleak pinturaz euskaratzeagatik (gaur Diputazioak berak jartzen ditu euskaraz) Mikel Nieto eta Joan Mari Beloki arratsalde oso bat koartelilloan eduki zituzten gizartearen zerbitzaile nekaezinen bandera .
